



IKASLEEN OINARRIZKO GAITASUNEN EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

1. Nobedade bat: ikasleen oinarrizko gaitasunen ebaluazio diagnostikoa

- Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoan eta DBHko 2. kurtsoan dauden ikasle guztiek 2008/09 ikasturtetik aurrera, urtero, proba batzuk egin beharko dituzte, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak prestatuko dituenak. Ikasleen ikastetxean bertan egingo dira probak.
- Proba horiek berberak izango dira Nafarroako ikasle guztientzat, eta irizpide berberak erabiliz zuzenduko dira.
- Ezarriko diren errendimendu mailak Nafarroa osoarentzat berberak izango dira.

2. Zergatik egin behar da ebaluazio hau?

LOEren (2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa) 21 eta 29 artikuluek hauxe adierazten dute:

“Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa amaitzean eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren kurtsoa amaitzean, ikasleek lortutako oinarrizko gaitasunen diagnostiko-ebaluazioa egingo dute ikastetxe guztiek. Ebaluazio hori hezkuntza-administrazioen eskumena izango da eta prestakuntza mailakoa eta orientatzailea izango da ikastetxeentzat, eta informazio mailakoa, familientzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat”.

3. Zertarako balio dute proba hauek? Zer ondorio akademiko izango dute?

- Balio hezigarria dute, hots, balio dute ikasleak hobeto ezagutzeko, eta zailtasunak edo gabeziak antzematen badira, ikasleei laguntzeko.
- Balio dute ikastetxeek euren programazioak egokitzeko eta hobekuntza-ildoak ezartzeko.
- Proba hauek ez dute balio akademikorik izango, hots, ez dute eragin zuzenik ez kalifikazioan, ez kurtsoz/ zikloz igotzean.
- LOEren 144.3. artikulua arabera, “Ebaluazio horien emaitzak ezin izango dira erabili ikastetxeen sailkapenak egiteko”.

4. Zer ebaluatuko da?

Ebaluazio honetan baloratuko da ea ikasleek lortu dituzten curriculumaren oinarrizko gaitasunak. Ikasleek erakutsi behar dute ea gai diren klasean ikasitakoa aplikatzeko, bitzta errealeko egoerak eta arazoak konpontzeko.

5. Zer lotura dute oinarrizko gaitasunen ebaluazio diagnostikoak eta irakasleek egin ohi dituzten ebaluazioak?

- Irakasleek egin ohi **dituzten ebaluazioak** egokituta daude klasean ematen diren gauzetara eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartzen dituzte. Beraz, irakasleek informazio asko dute egunero ikusten dutenari esker eta egiten dituzten probetatik, azterketetatik, lanetatik eta abarretatik atereaz.
- Oinarrizko gaitasunen **ebaluazio diagnostikoak**, berriz, Hezkuntza Departamentuak prestatutako probak erabiliz egiten dira eta erabiltzen diren zuzenketa-irizpideak komunak dira Nafarroako ikasle guztientzat, ikastetxea eta irakaslea zeinahi izanda ere.
- Bi ebaluazio mota horietatik etortzen den informazioa elkarren osagarria da.

6. Zein hizkuntzatan egingo dira probak?

- **G/A ereduko** ikasleek proba guztiak gaztelaniaz egingo dituzte, atzerriko hizkuntzaren gaitasuna neurtzeko proba izan ezik, oso-osorik ingelesez egingo baitute.
- **D ereduko** ikasleek proba guztiak euskaraz egingo dituzte, atzerriko hizkuntzaren gaitasuna neurtzeko proba izan ezik, oso-osorik ingelesez egingo baitute. Horrez gain, irakurriaren ulermen proba bat ere egingo da gaztelaniaz.

7. Nolakoak izango dira probak?

Hezkuntza Departamentuak *Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa* argitara eman du, irakasleentzat, batik bat, eta bertan proba eta ariketa ereduak eskaintzen dira.

8. Zer proba egin beharko dituzte ikasleek?

PROBA	Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoa	DBHko 2. kurtsoa
Irakurtzeko gaitasuna	✓	✓
Idazteko gaitasuna	✓	✓
Matematikarako gaitasuna	✓	✓
Zientziarako gaitasuna	✓	✓
Ingeleserako gaitasuna	✓	✓
Galdera-sorta	✓	✓

9. Kontuan hartuko diren beste alderdi batzuk: jarreraren eta ohituren balorazioa

Adimenaren garapenarekin zerikusia duten gaitasunak ez ezik, ikasleen garapen integralari laguntzen dioten ohiturak eta jarrerak ere baloratuko dira:

- Irakurtzeko jarrerak eta ohiturak.
- Eskolako lanetarako jarrerak eta ohiturak.
- Materialak ordenatzeko eta zaintzeko jarrerak eta ohiturak.
- Autonomiarako eta taldeka lan egiteko jarrerak eta ohiturak.
- Bizikidetzarako jarrerak eta ohiturak.

Familiak ere ebaluazioan parte hartuko dute, ikastetxeko irakasleekin lan eginez eta galdera-sorten bidez informazioa emanez.

10. Noiz eta nola egingo dira probak?

- Probak aldi berean egingo dira Nafarroako ikastetxe guztietan, bai publikoetan, bai itunduetan, maiatzeko lehenengo hamabostaldian.
- Ikastetxeek, irakasleek eta ikasleek ez dituzte probak ikusiko aplikatzeko ordura arte.
- Probak zorrotzasunez egite aldera, ikastetxeek kasu egingo diete Hezkuntza Departamentuak ezarritako jarraibideei. Jarraibide horietako bat da proba aplikatuko dutenak izan daitezela ikastaldeari klasea ematen ez dioten orientatzaileak eta irakasleak.

11. Ebaluazio honen emaitzak nola geratuko dira adierazita?

Emandako erantzun zuzenen kopuruaren arabera, ikasleak ondoko errendimendu-mailetako batera iritsiko dira:

1. MAILA Esan nahi du ikasleak proban puntuazio baxua lortu duela eta ez dituela dagozkion oinarrizko helburuak eta gaitasunak lortu.

2. MAILA Esan nahi du ikasleak ez dituela dagozkion oinarrizko helburuak eta gaitasunak lortu, baina lortzeko bidean dagoela. Eskatzen zaion mailatik gertu dago.

3. MAILA Esan nahi du ikasleak lortu dituela dagozkion oinarrizko helburuak eta gaitasunak.

3+ MAILA Esan nahi du ikasleak lortu dituela dagozkion oinarrizko helburuak eta gaitasunak, eta gainera proban puntuazio altua atera duela.

12. Gurasoei jakinaraziko zaizkie ebaluazio honen emaitzak?

Tutoreek txosten labur bat prestatuko dute eta bertan jasoko dira jarreraren eta ohituren balorazioa, proben emaitzak, emaitzen balorazio/interpretazio bat eta tutorearen eta irakasle-taldearen orientazioak. Txostena familiei emango zaie ikasturtearen amaieran, tutorearekiko bilera batean.

13. Banakako lan plana

Emaitzak betegarriak ez direnean (ez kurtsoko kalifikazioenak, ez proba hauenak), tutorearen eta irakasle-tutorearen orientazioek balio izango dute lan plan pertsonalizatu bat ezartzeko, ikastetxean garatuko dena, familiaren laguntzarekin.

14. Ikastetxearen etengabeko hobekuntza

- Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak zuzendaritza taldeari txosten bat helaraziko dio ikasleek lortutako emaitzekin, eta emaitza horien azterketa eginez ikastetxeek identifikatu ahal izango dituzte puntu sendoak eta hobetu daitezkeen arloak. Zuzendaritza taldeak Eskola Kontseiluari jakinaraziko dizkio emaitzak.
- Emaitzen azterketari dagokionez, zuzendaritza taldeak, irakasle-taldeek eta Eskola Kontseiluak kontuan hartuko dute zein inguru sozialetan eta kulturaletan dagoen ikastetxea, ikasleek dituzten interesak eta motibazioak, eta abar.
- Ikastetxeak, aurrekoarekin bat, ikastetxeko ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko ildoak ezarriko ditu, eta horretarako familien eta ikasleen beraien laguntza baliatuko dute.

15. Guztien elkarlana beharrezkoa da

Diagnostiko-ebaluazioak informazioa ematen dio hezkuntza-komunitate osoari eta komunitate horretako kide guztien parte-hartzea behar du. Hezkuntza komunitateko kide horiei guztiei eskerrak ematen dizkiegu Hezkuntza Departamentuaren partetik.